

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Baliabide finkoekin hasteko, udaletxeak herriarentzat eskuragarri dituen lokalak erakutsiko dizkigu, eta guk gure beharretara egokitzen den bat aukeratuko dugu. Bestalde, Jaladame lanean hasteko eta herritarrei zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak dira zenbait material, esate baterako, ordenagailuak, telefonoak, mahaiak, aulkiak, liburuak, jolasak... Denbora aurrera joan ahala eta dirua irabazten hasten garenean, gutxinaka beste zenbait material erosten hasiko gara, bigarren eskuko azoketan edo dendetan materialak erostea gustatuko litzaiguke, baina behar ditugun materialak bertan ez badaude, herriko dendetan erosten saiatuko gara, esate baterako, herriko liburu-jostailu dendetan, Elkarren...

Ondoren, baliabide intelektualak eta giza baliabideak azalduko ditugu. Adimen emozionalean aditua den Laura funtsezkoa da. Horretaz gain, Jaionek haur hezkuntzako ikasketak ditu eta harremanak sortzeko abilezia du, beraz, haurren portaera, ezaugarri eta behar dutena ezagutzen du. Haurrekin eta familiekin lehen kontaktua izango da. Bestalde, Daneleren jakintzak, bai psikopedagogian zein psikomotrizitatean baliagarriak izango dira, haur bakoitza desberdina delako eta hauek, emozioak era desberdinetan adierazten dituztelako. Psikologia eta informatika menperatzen dituen Meibh-ek bi lan desberdin beteko ditu: egiten ditugun lan guztiak ordenagailuan erregistratuko dira, beraz, bere informatikako ezagutzak beharrezkoak dira. Gainera, bere psikologiako ikasketek, haur zein familiekin lan egiteko baliagarriak izango dira. Administrazioa eta marketing-a kargu Laura egongo da, horrela, gure zerbitzua herrian ezagutzeko beharrezkoak diren ekintzetaz arduratuko da. Azkenik, Laurak eramango ditu sare sozialen kudeaketa.

azkenik, finantza baliabideak azalduko ditugu. Lauron artean aurreragoko proiektuen bitartez ditugun aurrezkiekin emango diogu hasiera Jaladameri. Bestalde, bankuari, enpresei zuzendutako diru-laguntzak eskatuko dizkiegu, eta beharrezkoa izanez gero mailegu bat eskatuko dugu, hilabetero, irabazitako diruarekin mailegua ordaintzen joango gara. Azkenik, udaletxeak / foru aldundiak eskaintzen dituen diru laguntzak eskatuko ditugu.